

EUSKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAK

Donostia'n, Aldundi-Jauregian, 1927'ko Epaila'ren 23'an.

Batzar aldi ontan euskaltzain jaun abek bildu dira: Azkue, Kanpion, Urkijo, Lande'etxe, Eguskitza, Intzagarai, Lakonbe, Etxegarai ta ordeko Muxika ta Garitaonandia. Urgazlerik batez. Otoitzez asi da batzaraldiya.

I.—Kanpion jaunak esan digu, gizon aberats bateg, Martin Urutia jaunak, eskola beñiyak iratsi nai dituela Oronoz-en ta on litzakela gizon onengana Euskaltzaindia urbiltzea, esanik, eskola beñi oyetan euskeraren alde alegin egiteko. Gizon aberats au Donostia'n bizi da ta Euskaltzaindiak biali du bere arteko bat jaun o'eri eskari ori egitera.

II.—Atsegiñez ikusten du Euskaltzaindiak Azkue ta Urkijo jaunen Madrid'ko elezaindirako izendamena.

III.—Azkue jaunak adierazi dizkigu aita Mendiburu'ren idaztankera (estilo) ta adizkerak «*Otoitz-gai*»-etatik ateriak.

IV.—Urkijo jaunak iraku'ri digu Alemany jaunari erantzun diona, onek, euskeraren gai zerbait artu-ta, lantxo bat argitaratu duelako *Real Academia de la Lengua* boletiniñean.

V.—Azkue jaunak ja'raitu du bere Mendiburutzazko lana.

VI.—Poz aundiz iraku'ri dira Altube euskaltzañak Amerika'tik bialtzen dizkigun zorionak.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta otoitzez amaitu da batzañaldi au.

Donostia'n, Aldundi-Jauregian, 1927'ko Epaila' ren 24'an.

Aureko batzañaldian aipatzen diran euskaltzain berak datoz eta Garitaonandia ordekoa.

Otoitzez asi da batzañaldi au.

I.—Lakonbe jaunak irakuñi dizkigu Intxauspe apai-zak Luziano Bonaparte'ri egindako eskutitzak.

II.—Eguskitza, jaunak Mogel'en *Catecismo explicado*-tik ateratako itz berezi batzuek irakuñi dizkigu ta oyen txerenda gorde ta jaso bear da garaiz argitaratzeko.

III.—Azkue jaunak Giputx-aditzaren idazki-azterpen bat irakuñi digu.

Ta beste gairik izan ez da, otoitzez amaitu da batzañaldiya.

Bilbo'n. Euskaltzaindiaren etxean, 1927'ko Joñaila'ren 28'an.

Batzañaldi ontara euskaltzain jaun abek datoz: Azkue maipuru, Urkijo, Landeñetxe, Eguskitza, Olabide, Lhande, Intza, Lakonbe, Etxegarai ta ordeko Oleaga ta Ormaetxea jaunak. Otoitzez asi da katzañaldia.

I.—Euskaltzainburu jaunak Hugo Schuchardt (G. B.) jaunaren il-beñiya eman digu. Jaun au gure Euskaltzaindiko deduzko lankidea genuen ta gizon jakintsu ta euskaltzale onen gorespena itzaldi xamur ta egokiyaz euskaltzainburu berak ederki egin digu.